



**2018KO EKAINAREN 1EKO  
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hemezortziko ekainaren batean, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide eta Marian Zufiria Apeztegia.

Joseba Imanol Aran Barandiaran zinegotziak bere ezin etorria adierazi du.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu da 2018ko maiatzaren 18an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

**II.- FAKTURAK.-**

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2018ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 40 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientearen dagoena, EHUN ETA HAMASEI MILA ZORTZIEHUN ETA HOGEITA HAMALAU EURO ETA BERROGEITA ZAZPI ZENTIMO (116.834,47 €)takoa onartzea erabakitzen da.

**III.- "LAZKAON" LAZKAOKO MERKATARI ELKARTEAREKIN HITZARMENA.-**


Tokiko Gobernu Batzordera aurkeztu da bere onarpenerako Lazkaoko "Lazkaon" merkatarien elkarte eta Lazkaoko Udalaren arteko hitzarmena. Hitzarmen honen xedea "udaberriko erosketa bonoen kanpaina" burutzea da. Hitzarmen honen baitan, udalak hiru mila laurehun eta laurogeita bost (3.485,00 €) euro arteko diru laguntza emango dio "Lazkaon" Lazkaoko merkatarien elkarteari.

Gaia aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin, hitzarmen hau onartzea erabakitzen du.

**IV.- GOIERRIKO HITZA ETA GOIERRI TELEBISTARI DIRU LAGUNTZAK .-**

Alkateak luzatutako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin, erabakitzen du Goierrri Telebistari eta Goierrriko Hitzari, bakoitzari, biztanleko 2 €ren pareko diru laguntza onartzea.

Azken datu ofizialen arabera Lazkaok duen biztanle kopurua 5.559 da eta beraz bakoitzari onartutako diru laguntza hamaika mila eta hirurogeita hemezortzi euro (11.118,00 €) da. Orain zenbateko honen erdia orain ordainduko zaie, hau da, bost mila bostehun eta berrogeita hemeretzi (5.559,00 €) euro.



#### V.- EUSKARA ETA HEZKUNTZAKO DIRU LAGUNTZAK .-

Euskara eta hezkuntza arloko zinegotziak egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin, honako hauek erabakitzen ditu:

San Benito Ikastola.- 2018ko aurrekontuan jardueretako 23.000,00 €ko diru laguntza eta mantentze lanetarako 34.000,00 €ko diru laguntza aurreikusita daudela kontuan izanda, orain jardueretako 12.000 eta mantentze gastuetarako 17.000,00 € ordaintzea.

Lazkao Txiki Musika Eskola.- 2018ko aurrekontuan 50.000,00 €ko diru laguntza aurreikusten dela kontuan izanda, orain erdia, hau da, 25.000,00 € ordaintzea.

Lazkao Txiki Musika Eskola.- 2018ko martxoaren 12tik 18ra bitarteko musika astearen antolaketarengatik 3.646,10 €ko diru laguntza ematea.

#### VI.- LAU KATU ELKARTEARI DIRU LAGUNTZA.-

Lau Katu Elkarteari, kaleko katuekin egiten duten jarduera diruz laguntzeko, mila (1.000,00 €) euro ematea proposatzen da. Diru laguntza hau aurrekontuan aurreikusita dago.

Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako guztien aldeko botoekin, proposamena onartzea erabakitzen du.

#### VII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak laurden gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



LAZKAOKO  
UDALA